

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ERORTZEAK ALTXATZEKO ETA HESIA JARTZEKO TEKNIKAK	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0777		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lehergai bidezko lurpeko indusketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Koadro, zertxa eta ainguraketa bidezko euspena	Iraupena	240
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Lehergai bidezko lurpeko indusketako lan-arriskuen prebentzioa (zeharkakoa)	Iraupena	60
	Koadro edo zertxa metaliko bidezko euspena.		60
	Hainbat buloi-mota bidezko euspena		60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0419_2 KOADRO, ZERTXA ETA AINGURAKETA BIDEZKO EUSPENA EGITEA gaitasun-ataleko LB5 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Hesia jartzeko eta erortzeak altxatzeko teknikak aplikatzea induskatutako baoetan ebakidurak handitzeko edo berreskuratzeko, ezarritako segurtasun-baldintzen arabera.

E1.1 Handitzeko planoak mozketara berrira behar bezala interpretatzea.

E1.2 Hesia jarri edo altxatu behar den hurbileko gunearen euspena bermatzeko ezarritako errefortzu-elementu motak identifikatzea

E1.3 Handitu edo berreskuratu beharreko mozketaren aurreko euspena kentzeko gauzatu behar diren eragiketak zerrendatzea.

E1.4 Jarritako azken euspenetik egindako piketatze-eragiketak deskribatzea hesia jartzerakoan edo lur-jotzea altxatzerakoan arropa asko ez erortzeko.

E1.5 Mozketa berria mailu pikatzaile bidez edo zulaketa eta leherketa bidez zeharkatzeko behar diren eragiketak identifikatzea, lurraren izaeraren eta egoeraren arabera.

E1.6 Berreskuratutako mozketan euspen berria jartzeko ezarritako lanen sekuentzia zerrendatzea.

E1.7 Hesiak jartzeko eta erortzeak altxatzeko lanaren arrisku espezifikoentarako prebentzio-neurriak identifikatzea: arrokak erortzea, hautsa sortzea, zarata, kolpeak eta karga astunak manipulatzearen eta jarrera desegokiak edukitzearen ondoriozko giharretako eta hezurretako lesioak.

E1.8 Egoera espezifiko batean:

- Hesia jarri behar den lekutik hurbil dagoen gunea sendotzea.
- Hala badagokio, hesia jarri behar den guneko euspena kentzea.
- Obra-hondakinak eta materialak kentzea frontetik.
- Frankeoa mailu pikatzailea erabiliz egitea, piketatuz.
- Zulaketa eta leherketa bidezko frankeoa egitea.
- Euspen berria jartzea.

Edukiak:

1. Galiboak berreskuratzea edo handitzea.

- Mozketa handitzeko planoen interpretazioa.
- Handitu beharreko baoa edo eskoratzea sendotzeko elementuak.
- Piketatzea.
- Morteroen osagaiak.
- Erretxinazko kartutxoak.
- Ainguraketa puntuala eta fabrikatzailearen argibideak.
- Finkapena: eskuzkoa eta mekanizatua.
- Egite- eta gogortze-denbora.
- Piketatze ezarritako lan-prozedurak.
- Hesia jartzeko edo erortzeak altxatzeko ezarritako lan-prozedurak.
- Euspena jartzea.

2. Hesia jartzeko edo lur-jotzea altxatzeko prozedura.

- Hesia jarri behar den lekutik hurbil dagoen gunea sendotzea.
- Hala badagokio, hesia jarri behar den guneko euspina kentzea.
- Obra-hondakinak eta materialak kentzea frontetik.
- Frankeoa mailu pikatzailea erabiliz egitea, piketatuz.
- Zulaketa eta leherketa bidezko frankeoa.
- Euspen berria jartzea.

3. Lan-arrisku espezifikoak hesiak jartzerakoan eta erortzeak altxatzerakoan.

- Arrokkak erortzea.
- Hautsa sortzea.
- Zarata
- Kolpeak eta lesioak.
- Jarrera desegokiak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0776 Hainbat buloi-mota bidezko euspina

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lehergai bidezko lurpeko indusketak